



TOLOSAKO  
UDALA

## **OHIKO OSOKO BILKURA**

**2019.12.19**

Tolosako Udaletxean, 2019ko abenduaren 19an, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

**Alkate-lehendakaria:**

Olatz Peon Ormazabal

**Bertaratutako zinegotziak:**

Begoña Tolosa Mendia  
Nerea Letamendia Belloso  
Jose Francisco Amantegi Zubiria  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Egoitz Sorozabal Iturain  
Xabier Balerdi Tolosa  
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe  
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui

Kristina Pelaez Errazquin  
Aitana Amondarain Esquisabel  
Aitzol Garcia Azurmendi  
Olatz Artola Apezteguia  
Ander Figuerido Zubiria  
Garbiñe Marzol Ormazabal  
Xabier Martinez Quinquilla  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria

**Idazkaria:**

Begoña Garmendia Vazquez

**Jarduneko kontuhartzailea:**

Paulino Alonso Eraso

### **Eguneko gaia zerrenda**

1. Ondorengo akta onartzea:  
2019ko azaroaren 28ko Osoko Bilkurakoa.
2. Onartzea Tolosako Udaleko lan hitzarmenaren aldaketa: airtasuna eta lizentziak gaixoardiarengatik.
3. Onartzea Tolosako Udaleko lanpostu zerrendaren aldaketa.
4. Eratzea Udalbatzaren eskumenerako kontratazio-mahai iraunkorra.



TOLOSAKO  
UDALA

5. Onartzea Herritarren Arreta Zerbitzua (UDATE) arautzen duen ordenantzaren akatsen zuzenketak.
6. 2020ko Aurrekontu Orokorraren hasierako onarpena.
7. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:  
2019ko azaroaren 4tik 29ra (2019/1779-2019/2016).
8. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

**1. ONDORENGO AKTA ONARTZEA: 2019KO AZAROAREN 28KO OSOKO BILKURAKOA.**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu da.

Ehbilduko zinegotzi Andu Martinez de Rituerto Agirrek honako hau adierazi du: aktarekin ez daukagu inongo eragozpenik, baina, ahal den neurrian, gustatuko litzaiguke lehentxeago jasotzea. Atzo jaso genuen eta, berez, bi egun lehenago jasotzea nahiko genuke ahal den neurrian.

**2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO LAN HITZARMENAREN ALDAKETA: AITATASUNA ETA LIZENTZIAK GAIXOALDIARENGATIK.**

Parte- hartzeak:

- ... Xabier Balerdi Tolosa Antolakuntzako zinegotzi delegatuak (EAJ-PNV) irizpenaren aurrekariak azaldu ditu.
- ... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU) : *“Tolosako Udaleko langileen lan baldintzak hobetzeko neurriak izanik, gure oniritzia jasoko du proposamenak. Langile batzordearekin adostutako aldaketa hauek bidezkoak iruditzen zaizkigu, langileen eskubideak hobetzeko neurriak direlako. Alde batetik, langile bat aldi baterako ez gaitasun egoeran izatearen baldintzak hobetzeko, 2012an langile batzordeak proposatu eta eurekin adosturiko konpromisoa finkatu eta hitzarmenean islatzen da, egoera horretan egoteak desabantaila ekonomikoak ekar ez ditzan. Bestetik, ama biologikoa ez den beste gurasoaren baimenaren luzapena aurreratzea, lana eta familia bateragarri egiteko aurrerapauso bat da, baita emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurri aproposa ere. Azken finean, erakunde publikoa izanik, aitzindariak izan behar gara langileen lan baldintzak eta eskubideak bermatze eta hobetze aldera, asken finean lan duinak lortzeko bidean.”*



TOLOSAKO  
UDALA

... Alkatea: "Aipatu nahi nuke Berdintasun politikak lantzeko zeharkakotasuna izan dela lan lerroetako bat azkenengo urte hauetan. Legealdi honetako helburu eta zeregin nagusienetako bat da berdintasun urratsak egitea Udal berdinzalegoa bat sustatzen jarraitzea. Genero zeharkakotasuna barne kulturari txertatzen eta politika publikoen diseinuan ikuspegi feminista barreiatzen baita ere. Emakume eta gizonen bizitza pertsonala eta profesionala baita ere garatzeko aukera berdintasuna izatea da erronketako bat. Erakunde publikoak sustatu behar du eta ardura badu erakundeak baino esan genezake baita ere ardura kolektibo bat ere badela, ezta? Lana eta familia uztartu ahal izateak gizarteko kohesioan eta lehiakortasun ekonomikoan eragina zuzena du eta kontziliazioa beharrezkoa da parekidetasuna errealitate bihurtu nahi badugu. Atzo bertan, Gipuzkoako Foru Aldundian Gobernantza irekiaren saio batean egoteko aukera izan nuen eta bertan hizlarietako batek, Juanjo Alvarezek, esaten zuen politikak eremu politikoan izan behar duela baina baita ere eremu pribatuetan eta hau izan liteke horren neurritako bat. Horregatik, aitatasun eta amatasun baimenak berdintzea aurrera paso garrantzitsua da eta norantza horretan lan egin behar dugu pixkana pixkana gizarteak berdintasuneko urratsak barneratu ditzan. "

-----

## **ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2019KO ABENDUAREN 12KO IRIZPENA.**

Tolosako Udaleko lan hitzarmenaren testua aldatzeko bi proposamen egiten dira:

- Bata, gaixotasun lizentziaren baldintzen inguruan, 47. artikuluan arautua dagoena.
- Bestea, aitatasun lizentziari buruzkoa, 54. artikuluan arautua dagoena.

### **AURREKARIAK**

#### **1.- GAIXOTASUN LIZENTZIA**

Udalhitz lan hitzarmenak xedatzen du langile bat aldi baterako ez gaitasun egoeran dagoen bitartean, sei hilabetez ordainsarien % 100 jasotzeko eskubidea duela, beti ere hainbat baldintza betetzen baditu. Honela, zazpigarren hilabetetik aurrera, udal langileek ordainsarien % 80 jasotzeko eskubidea aurreikusten du.

Aldiz, Tolosako Udaleko langileek zazpigarren hilabetetik aurrera, % 100eko ordainsaria jasotzen dute, 2012. urtean Udalak eta ordezkari sindikalek adostutako konpromiso batzuen baitan; honela, Udalaren borondatea da konpromiso horiek mantentzea, dagokion eskumenaren barnean, eta aipaturiko babes sozial honekin jarraitzea, dagokion eran formalizatuaz.



## 2.- AITATASUN LIZENTZIAK

Aitatasun baimena arautzen duen *martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua – emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera-berdintasunerako premiazko neurriei buruzkoa--*, *Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua)*, 49 c) artikulua aldatu eta indarrean sartu zen.

Xedapen horretan egindako aldaketarekin bat etorritik, eta aipatutako testuaren bederatzigarren xedapen iragankorrean jasotako luzapen progresiboaren babesean, 2019an jaiotako haurren kasuan, baimena 8 astekoa izango da; 2020an, 12 astera luzatuko da, eta 2021ean, 16 astera.

Araudi horrek aurrerapen handia dakarren arren, EUDELEk proposatu du haren aplikazioa aurreratzea, eta bi gurasoek dituzten jaiotzagatik baimenen iraupena parekatzea; izan ere, botere publikoek ezin diote ezikusia egin gizonen eta emakumeen arteko berdintasun errearen eta eraginkorraren alde, erantzunkidetasun-printzipioaren alde, eta bizitza pertsonalaren eta familiarraren kontziliazioa sustatzearen alde dagoen eskaera sozialari.

Horregatik guztiatik, eta gure inguruko beste instituzio publiko batzuek hartutako erabakiekin bat etorritik, EUDELEk proposatu du *Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren* bederatzigarren xedapen iragankorrean baimen horretarako jasotako araudiaren aplikazioaren aurrerapena sustatzea, eta, iraupenari dagokionez, 126 egun naturalera arte luzatzea (18 aste), horrela, legegileak lortu nahi duen amatasun-baimenarekin parekatu ahal izateko. Dagokigun kasuan, bat dator aipatutako 126 egunekin, Tolosako Udaleko akordio arautzaileko 54. artikuluan jasotakoaren arabera.

Aurrekoari jarraiki, Tolosako Udalak proposatzen du onartzea, behin ordezkarri sindikalekin negoziatu ostean, akordio hau: bi gurasoentzat seme-alabaren jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatik dauden baimenen iraupena parekatzeko akordioa .

1. 2019ko abenduaren 19tik aurrera, ama biologikoa ez den beste guraso baten baimenaren iraupena 126 egun naturalekoa izango da, seme edo alaba baten jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatik; horietatik, gertaera eragilearen ondoko sei asteak nahitaezko atsedendia izango dira. Baimen hori bi aste luzatuko da, aste bat guraso bakoitzarentzat, seme edo alaba ezindua bada, eta seme edo alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, jaiotza, adopzio aurreko zaintza edo harrera anizkoitza bada; eta jaiotza-datatik, adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren administrazio-erabakitik, edo adopzioa eratzen duen ebazpen judizialek aurrera hartu beharko da.

2. Aurreko puntuan aurreikusitakoa urratzen ez duen guztian, seme edo alabaren jaiotzagatik, adopzio aurreko zaintzagatik, harreragatik edo adopzioagatik ama biologikoa ez den gurasoaren baimena hartzeko, *Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren* Legearen Testu Bateginak 49 c) artikuluan jasotako estipulazioak bete



beharko dira, eta, ondorio horietarako, ez dira aplikatuko baimen hori arian-arian aplikatzeko aipatutako lege-arauaren bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusten diren epeak. Aurrekoa gorabehera, lanaldi irregularra duten langileek, haien lanaldia ziklikoki ondoz ondoko egun batzuetako oporraldiak ezartzen dituzten lan-egutegiaren bidez banatzen bada, etendako baimena hartu ahal izateko, gutxienez bi aste natural osoko gutxieneko aldiak eskatu beharko dituzte, edo, bestela, proportzionaltasun-printzipioari eutsiko dioten antzeko beste formula batzuk erabili ahal izango dituzte.

3. Akordio honek xurgatu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioak (UDALHITZ 2008-2010) 48. artikuluan ezarritakoa, bai eta beste edozein akordio, itun edo xedapenetan ezarritakoa ere, baldin eta baimen gehigarriak ezartzen badira ama biologikoa ez den gurasoarentzat, seme edo alabaren jaiotza, adopzio-helburuko zaintza, harrera edo adopzioagatik.

## OINARRI JURIDIKOA

**Lehena.**- Udalhitz lan hitzarmena erregulatzen dituen lan baldintzen akordioak honakoa adierazten du ez gaitasunen inguruan:

### *«47. artikulua.- Lizentziak gaixotasunagatik edo istripuagatik*

#### 1. Gaixotasun arrunta:

.../...

- c) *Mediku-baja gaixotasun arruntagatik denean, langile publikoek beren ordainsarien 100% osatzeko diru-konpentsazioa jasoko dute, gehienez ere 6 hilabeteko epean; behin epe hori gaudituta, beren ordainsarien %80 jasoko dute, beren baja amaitu arte. Aldez aurretik dauden diru-laguntza osagarriak edo Erakunde bakoitzarekin adostu daitezkeenak ez dute kalterik izango.*
- d) *Aurreko atalak jasotako diru-konpentsazioa gauzatzeko, langileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:*
  - 1) *Langileak berak edo delegatzen duen pertsonak, indarrean dagoen araudiak jasotzen duen terminoetan, baja modu ofizialean onartzeko zehaztutako tramite guztiak egitea eta Akordio honetan gaiaren inguruan zehazten diren baldintzak eta prozedurak betetzea.*
  - 2) *Medikuaren gomendioak betetzea eta Erakundeko mediku-zerbitzuek egin nahi dituzten mediku-azterketak egiteko erraztasunak ematea.*
  - 3) *Langileak ezin du, inola ere, mediku baja eragin duen gaixotasunarekin edo istripuarekin bateragarria ez den jarduera bat egin ordaindua zen ez-, horregatik dagokion diziplina erantzukizuna kontuan izan gabe.*
  - 4) *Langileak gaixotasun edo istripuak eragindako egoera berariaz edo arrazoirik gabe luzatzea, horri dagokion diziplina erantzukizunean eragin barik.*
- e) *Aurreko atalak jasotako ordainsariak ordaintzeko, alta egoeran egoteari dagozkion hartzeko*



TOLOSAKO  
UDALA

*irabaziak hartuko dira kontuan, eta Bigarren Tituluko 67. Artikuluan jasotzen diren ordainsari kontzeptu guztiak zenbatuko dira.*

- f) *Horren harira, gaixotasunagatik hartzen den bigarren baja lehenengoaren berdina dela esaten da beren arrazoiak berberak badira eta bien artean ez bada izan benetako laneko hilabete naturala; oporraldia ez da benetako lanaren hilabete naturalaren barruan zenbatuko.*
- g) *Artikulu honetan jasotzen diren baldintzetako bat bete gabe uzten bada, baldintza bete gabe utzi eta hurrengo egunera eta prozesuak irauten duen arte, ez da ordainduko diru-kontentsazio osagarria, eta langilea Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrak zehaztutako ordainsariak jasoko ditu."*

**Bigarrena.-** Udalhitz lan hitzarmena erregulatzen dituen lan baldintzen akordioak honakoa adierazten du aitatasun lizentziaren inguruan:

**"48. artikulua.- Aitatasun lizentzia.**

- 1. *Seme-alabaren jaiotza, harrera edo adopzioa dela-eta, ondorengo baimenak emango dira, dagokion datan zenbatzen hasita: jaiotza, harreraren erabaki administratiboa edo judiziala, edo adopzioa eratzen duen ebazpen judiziala: .  
2008. urtekoak- 15 egun natural  
2009. urtekoak- 3 astebete  
2010. urtetik aurrerakoak- 4 astebete*
- 2. *Erditzean amarentzako edo seme-alabarentzat mediku-arazoak sortu badira edo erditzea ohiko etxebizitzatik 150 kilometro baino gehiagora gertatzen bada, aurreko atalean aipatutako lizentziari beste bi asteguneko baimena gaineratuko zaio, joan-etorriak errazteko."*

**Hirugarrena.-** Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, negoziazioaren inguruan eta akordioaren inguruan, 38. artikuluan xedatzen du Administrazio Publikoak akordioak hitzartu ahal izango dituztela enplegatu publikoen lan baldintzak ezartzeko. Honelaxe dio aipatu xedapenak:

- "1. En el seno de las Mesas de Negociación correspondientes, los representantes de las Administraciones Públicas podrán concertar Pactos y Acuerdos con la representación de las organizaciones sindicales legitimadas a tales efectos, para la determinación de condiciones de trabajo de los funcionarios de dichas Administraciones.*
- 2. Los Pactos se celebrarán sobre materias que se correspondan estrictamente con el ámbito competencial del órgano administrativo que lo suscriba y se aplicarán directamente al personal del ámbito correspondiente.*
- 3. Los Acuerdos versarán sobre materias competencia de los órganos de gobierno de las Administraciones Públicas. Para su validez y eficacia será necesaria su aprobación expresa y formal por estos órganos. Cuando tales Acuerdos hayan sido ratificados y afecten a temas que pueden ser decididos de forma definitiva por los órganos de gobierno, el contenido de los mismos será directamente aplicable al personal incluido en su ámbito de aplicación, sin perjuicio de que a efectos formales se requiera la modificación o derogación, en su caso, de la normativa reglamentaria correspondiente.*



*Si los Acuerdos ratificados tratan sobre materias sometidas a reserva de ley que, en consecuencia, sólo pueden ser determinadas definitivamente por las Cortes Generales o las asambleas legislativas de las comunidades autónomas, su contenido carecerá de eficacia directa. No obstante, en este supuesto, el órgano de gobierno respectivo que tenga iniciativa legislativa procederá a la elaboración, aprobación y remisión a las Cortes Generales o asambleas legislativas de las comunidades autónomas del correspondiente proyecto de ley conforme al contenido del Acuerdo y en el plazo que se hubiera acordado.*

*Cuando exista falta de ratificación de un Acuerdo o, en su caso, una negativa expresa a incorporar lo acordado en el proyecto de ley correspondiente, se deberá iniciar la renegociación de las materias tratadas en el plazo de un mes, si así lo solicitara al menos la mayoría de una de las partes.*

- 4. Los Pactos y Acuerdos deberán determinar las partes que los conciertan, el ámbito personal, funcional, territorial y temporal, así como la forma, plazo de preaviso y condiciones de denuncia de los mismos.*
- 5. Se establecerán Comisiones Paritarias de seguimiento de los Pactos y Acuerdos con la composición y funciones que las partes determinen.*
- 6. Los Pactos celebrados y los Acuerdos, una vez ratificados, deberán ser remitidos a la Oficina Pública que cada Administración competente determine y la Autoridad respectiva ordenará su publicación en el Boletín Oficial que corresponda en función del ámbito territorial.*
- 7. En el supuesto de que no se produzca acuerdo en la negociación o en la renegociación prevista en el último párrafo del apartado 3 del presente artículo y una vez agotados, en su caso, los procedimientos de solución extrajudicial de conflictos, corresponderá a los órganos de gobierno de las Administraciones Públicas establecer las condiciones de trabajo de los funcionarios con las excepciones contempladas en los apartados 11, 12 y 13 del presente artículo.*
- 8. Los Pactos y Acuerdos que, de conformidad con lo establecido en el artículo 37, contengan materias y condiciones generales de trabajo comunes al personal funcionario y laboral, tendrán la consideración y efectos previstos en este artículo para los funcionarios y en el artículo 83 del Estatuto de los Trabajadores para el personal laboral.*
- 9. Los Pactos y Acuerdos en sus respectivos ámbitos y en relación con las competencias de cada Administración Pública, podrán establecer la estructura de la negociación colectiva así como fijar las reglas que han de resolver los conflictos de concurrencia entre las negociaciones de distinto ámbito y los criterios de primacía y complementariedad entre las diferentes unidades negociadoras.*
- 10. Se garantiza el cumplimiento de los Pactos y Acuerdos, salvo cuando excepcionalmente y por causa grave de interés público derivada de una alteración sustancial de las circunstancias económicas, los órganos de gobierno de las Administraciones Públicas suspendan o modifiquen el cumplimiento de Pactos y Acuerdos ya firmados, en la medida estrictamente necesaria para salvaguardar el interés público.*

*En este supuesto, las Administraciones Públicas deberán informar a las organizaciones sindicales de las causas de la suspensión o modificación.*

*A los efectos de los previsto en este apartado, se entenderá, entre otras, que concurre*



TOLOSAKO  
UDALA

*causa grave de interés público derivada de la alteración sustancial de las circunstancias económicas cuando las Administraciones Públicas deban adoptar medidas o planes de ajuste, de reequilibrio de las cuentas públicas o de carácter económico financiero para asegurar la estabilidad presupuestaria o la corrección del déficit público.*

11. *Salvo acuerdo en contrario, los Pactos y Acuerdos se prorrogarán de año en año si no mediara denuncia expresa de una de las partes.*
12. *La vigencia del contenido de los Pactos y Acuerdos una vez concluida su duración, se producirá en los términos que los mismos hubieren establecido.*
13. *Los Pactos y Acuerdos que sucedan a otros anteriores los derogan en su integridad, salvo los aspectos que expresamente se acuerde mantener.”*

Halaber, aipatu Testu Bateratuaren 37 artikulua negoziazio gaiak arautzen ditu, besteen artean:

**“Artículo 37. Materias objeto de negociación**

1. *Serán objeto de negociación, en su ámbito respectivo y en relación con las competencias de cada Administración Pública y con el alcance que legalmente proceda en cada caso, las materias siguientes:*

*.../...*

*i) Los criterios generales de acción social “*

**Laugarrena.-** Hitzarmen aldaketa honek bere isla ekonomikoa izango du, izan ere, gastu gehikuntza bat dakar (% 80tik % 100era bitarteko ordainsarien arteko aldea) eta baita ere aitatasun lizentzia aitortzerako garaian (izan ere, 112 egun Gizarte Segurantzak ordaintzen ditu, baina 126 egun dira eta azken 14 egunak Udalaren gain doaz). Gastu gehikuntza hau 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak (2019an ez baitira onartu) ezarritako xedapen bat erabiliz baimendu daiteke, hain zuzen ere, 18. Bi artikuluan arautzen duena:

“Además, se podrá autorizar un incremento adicional del 0,2 por ciento de la masa salarial para, entre otras medidas, la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones. En las Administraciones y resto de entidades del sector público definido en este artículo en situación de superávit presupuestario en el ejercicio 2017, este incremento adicional podrá alcanzar el 0,3 por ciento. “

Tolosako Udalaren kasuan, 2017ko eta 2018ko ekitaldietan superabita egon denez, % 0,3aren ordainsari masa aplikatzeko aukera egongo litzateke.





TOLOSAKO  
UDALA

## ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua araberak, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko, aurretik Antolakuntza Batzordeak gaia diktaminatu beharko duelarik.

- Bestetik, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua i) atalean xedaturikoaren araberak, jarduera sozialeko izaera duten irizpide orokorrak, pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar direla, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Honela, Komitearekin urriaren 30ean, azaroaren 20an eta azaroaren 26an egindako bileretan gaiak tratatu eta adostu dira.

Hori guztia ikusirik, Antolakuntza Batzordeak, Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso. Aitana Amondarain Esquisabel, Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleriaren aldeko botoekin, aho batez, irizpen hau eman du:

## IRIZPENA

**Lehena.**- Aldatzea Tolosako Udaleko lan hitzarmena erregulatzen duen lan-baldintzen akordioa eta onartzea, aldi baterako ezgaitasunen kasuan, bere 47. artikuluan, honako erredakzio berri hau:

### «47. artikulua.- Lizentziak gaixotasunagatik edo istripuagatik

#### 1. Gaixotasun arrunta:

.../...

- c) *Mediku-baja gaixotasun arruntagatik denean, langile publikoek beren ordainsarien 100% osatzeko diru-konpentsazioa jasoko dute, gehienez ere 6 hilabeteko epean; behin epe hori gaindituta, beren ordainsarien %100a jasoko dute, beren baja amaitu arte*

**Bigarrena.**- Aldatzea Tolosako Udaleko lan hitzarmena erregulatzen duen lan-baldintzen akordioa eta, aitatasunaren lizentzien kasuan, bere 54 artikuluan, honako erredakzio berri hau onartzea:

- “1. 2019ko abenduaren 19tik aurrera, ama biologikoa ez den beste guraso baten baimenaren iraupena 126 egun naturalekoa izango da, seme edo alaba baten jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatik; horietatik, gertaera eragilearen ondoko sei asteak nahitaezko atsedenaldia izango dira. Baimen hori bi aste luzatuko*



TOLOSAKO  
UDALA

*da, aste bat guraso bakoitzarentzat, seme edo alaba ezindua bada, eta seme edo alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, jaiotza, adopzio aurreko zaintza edo harrera anizkoitza bada; eta jaiotza-datatik, adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren administrazio-erabakitik, edo adopzioa eratzen duen ebazpen judizialek aurrera hartu beharko da.*

2. *Aurreko puntuan aurreikusitakoa urratzen ez duen guztian, seme edo alabaren jaiotzagatik, adopzio aurreko zaintzagatik, harreragatik edo adopzioagatik ama biologikoa ez den gurasoaren baimena hartzeko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateginak 49 c) artikuluan jasotako estipulazioak bete beharko dira, eta, ondorio horietarako, ez dira aplikatuko baimen hori arian-arian aplikatzeko aipatutako lege-arauaren bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusten diren epeak. Aurrekoa gorabehera, lanaldi irregularra duten langileek, haien lanaldia ziklikoki ondoz ondoko egun batzuetako oporraldiak ezartzen dituzten lan-egutegien bidez banatzen bada, etendako baimena hartu ahal izateko, gutxienez bi aste natural osoko gutxieneko aldiak eskatu beharko dituzte, edo, bestela, proportzionaltasun-printzipioari eutsiko dioten antzeko beste formula batzuk erabili ahal izango dituzte.*
3. *Akordio honek xurgatu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioak (UDALHITZ 2008-2010) 48. artikuluan ezarritakoa, bai eta beste edozein akordio, itun edo xedapenetan ezarritakoa ere, baldin eta baimen gehigarriak ezartzen badira ama biologikoa ez den gurasoarentzat, seme edo alabaren jaiotza, adopzio-helburuko zaintza, harrera edo adopzioagatik.”*

**Hirugarrena.**- Akordioa Komiteari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako Udaleko lan hitzarmenaren aldaketa aitatasuna eta lizentziak gaixoaldiarengatik.

### **3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA.**

Parte-hartzeak:

... Xabier Balerdi Tolosa Antolakuntzako zinegotzi delegatuak (EAJ-PNV) irizpenaren



TOLOSAKO  
UDALA

aurrekariak azaldu ditu eta ebazpen proposamena.

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): *"Lanpostu zerrendan aldaketa hau begi onez ikusten dugu. Batetik: orain arte hutsik egon diren administrazio orokorreko bi lanpostu horien egokitzapen baterako pauso moduan. Eta bestetik: lan hori egiten duten azpikontratatuak langileei, baldintza hobekak izango dituen udal lanpostu baterako aukera irekiko dielako. Hala ere, kontutan izanda, kultura sailetik egindako txosten teknikoan "Liburutegiko laguntzaile" eta "Liburutegi teknikari laguntzaile" lanpostuak sortzeko proposamena egiten zela, gaur egungo egoera bideratzen hasteko pauso moduan ulertzen dugu. Eta etorkizunean, Liburutegi berriaren proiektua lantzeko garaian, kontutan edukiko gela kultur sailetik egingo den proposamena."*

-----

## **ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2019KO ABENDUAREN 12KO IRIZPENA.**

### **AURREKARIAK**

Tolosako Udalak, 2018ko abenduaren 10ean egindako Udalbatzan, besteen artean, 2018. urteko Lanpostu zerrenda onartu zuen.

Kultura, Festak eta Gazteria Sailean, dagokion Lanpostu zerrendan, bi lanpostu daude "Liburutegiko administrari" deituak; beren ezaugarrien artean, Administrazio orokorreko eskalan sailkatuak egotea dago; honek esanahi du lanpostuaren betekizunak eskatzerako orduan, C1 sailkapen taldeari dagokion titulazio orokor bat eska daitekeela lanpostua betetzeko.

Aldiz, Kulturako zerbitzuburuak egindako txostenaren baitan, bi lanpostu berregin eta "Liburutegiko laguntzaile" lanpostu bat eta "Liburutegi teknikari laguntzaile" lanpostu bat sortzeko proposamena egin du. Dena den, kontuan hartuta urte hauetan zehar bi administrari laguntzaile lanpostu egon direla eta momentu honetan lanpostuen balorazioa prozesua martxan egonda, proposatzen da momentuz egun dauden liburutegiko bi administrari lanpostuak Administrazio bereziko eskalakoak izatea eta "Liburutegiko teknikari laguntzailea" izena ematea; honela, titulazio berezia eskatu ahal izateko, (bibliotekonomia eta artxibista titulazioa) balorazio prozesuan zehar aztertuko da zein izan beharko lukeen liburutegiaren dimentsionamendua eta liburutegiko plantillaren lanpostuek behar duen profil zehatza.

### **ZUZENBIDEZKO OINARRIAK**

#### **a) LANPOSTU ZERRENDA**

5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutua arautzen duenak, 74. artikuluan ezartzen duenez, "Las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de



*puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares*". Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeke ahalarren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen Zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

- Lanpostuaren izena.
- Saillapen profesionalean zein Taldetakoa den.
- Lanpostuaren eskala.
- Lanpostua betetzeko modua.
- Ordainsari osagarriak.

Lehen aipatutako 5/2015 Dekretuaren 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeko irizpideak.

Bestalde, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 13. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu Lanpostuen Zerrendak, honela:

- Administrazio Publikoetako Lanpostuen Zerrenden xedea da: barne-egiturak arrazionalizatzea eta ordenatzea, langile-premiak finkatzea, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztea eta lanpostu bakoitza sailkatzea.
- Lanpostuen Zerrendek lanpostu guztiak jaso behar dituzte, aurrekontuan dotazioa duten guztiak, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz.
- Lanpostuen Zerrendek honako hauek adieraziko dituzte lanpostu bakoitzeko: lanpostuaren izena; saila; dedikazio-erregimena; lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean hizkuntz eskakizuna; saillapen-taldea, eskala, azpieskala edo kategoria lan-kontratuko langileak direnean; osagarriak (destinokoa eta espezifikoa), eta lanpostua betetzeko modua.

Bestalde, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarritzko legerian aurreikusitakoren arabera.

Aurrekoarekin kontsonantzian, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarritzko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legeko 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBko 126. artikulua, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantila prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantilan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantila aldatzeko prozedura.

**b)** Azken urteetako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituzten Legeek Herri Administrazioetan lanpostu berriak sartzeko zailtasunak ezarri dituzte **"birjarpen tasa"** delakoaren bidez.



TOLOSAKO  
UDALA

2018ko ekitaldirako, 2019. urterako aurrekonturik ez baitago, uztailaren 3ko 6/2.018 Legearen 19. artikulua Lan eskaintza publikoen eta lanpostu berriak hornitzearen inguruan ondokoa xedatzen du:

*“ Uno. 1. La **incorporación de nuevo personal** en el sector público delimitado en el artículo anterior, a excepción de las sociedades mercantiles públicas y entidades públicas empresariales, fundaciones del sector público y consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el Sector Público, que se regirán por lo dispuesto en las disposiciones adicionales décima quinta, décima sexta y décima séptima respectivamente, de esta Ley y de los Órganos Constitucionales del Estado, **estará sujeta a los límites y requisitos** establecidos en los apartados siguientes.*

*2. Respetando, en todo caso, las disponibilidades presupuestarias del Capítulo I de los correspondientes presupuestos de gastos, en los siguientes sectores y administraciones la tasa de reposición se fijará **hasta un máximo del 100 por ciento**:*

*.../...*

*C) Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, Cuerpos de Policía Autónoma de aquellas Comunidades Autónomas que cuenten con Cuerpos propios de dicha Policía en su territorio, y, en el ámbito de la Administración Local, personal de la Policía Local, en relación con la cobertura de las correspondientes plazas de dicha Policía.*

*.../...*

*F) Administraciones Públicas respecto del asesoramiento jurídico y la gestión de los recursos públicos.*

*.../...*

*O) Plazas de personal que presta asistencia directa a los usuarios de los servicios sociales.*

*.../...*

*S) Personal de atención a los ciudadanos en los servicios públicos.*

*.../...*

*3. En los **sectores** y Administraciones **no recogidos en el apartado anterior**, la tasa de reposición se fijará hasta un **máximo del 50 por ciento**.*

*4. Para calcular la tasa de reposición de efectivos, el porcentaje máximo a que se refiere el apartado anterior se aplicará sobre la diferencia resultante entre el número de empleados fijos que, durante el ejercicio presupuestario de 2015, dejaron de prestar servicios en cada uno de los sectores, ámbitos, cuerpos o categorías, previstos en el apartado anterior y el número de empleados fijos que se hubieran incorporado en los mismos, en el referido ejercicio, por cualquier causa, excepto los procedentes de ofertas de empleo público, o reingresado desde situaciones que no conlleven la reserva de puestos de trabajo. A estos efectos, se computarán los ceses en la prestación de servicios por jubilación, retiro, fallecimiento, renuncia, declaración en situación de*



*excedencia sin reserva de puesto de trabajo, pérdida de la condición de funcionario de carrera o la extinción del contrato de trabajo o en cualquier otra situación administrativa que no suponga la reserva de puesto de trabajo o la percepción de retribuciones con cargo a la Administración en la que se cesa.*

**No computarán** dentro del límite máximo de plazas derivado de la **tasa de reposición** de efectivos las **plazas** que se convoquen para su provisión mediante procesos de **promoción interna** y las correspondientes al **personal** declarado **indefinido no fijo mediante sentencia judicial.**

Beraz, lege honetatik ondorioztatu daiteke ezin direla 2019. urtean aipatu "Liburuzain teknikari laguntzaile" lanpostu berri horiek behin betiko izaeraz bete, soilik behin-behineko izaeraz, eta 2020. urtean, erreposizio tasa betetzen badu Udalak, orduan hau behin betiko izaeraz hornitu ahal izango du.

Kasu honetan, aldi baterako izendapen zein kontratazioei dagokienez, aipatu uztaillaren 3ko 6/2018 Legeak, 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrek onartzen ditu. Bertan, aipatu legeko 20. artikuluko bigarren apartatuak dioenaren arabera, ezin izango da egin aldi baterako kontrataziorik, ezta bitarteko funtzionariorik izendatu ere, baldin eta ez bada salbuespenezko kasuren bat, premiazko eta atzeraezinezko beharren bati erantzuteko; gainera, mugatuko dira lehentasunezko izaera duten edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduetan eragina duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara.

Horregatik, sail bakoitzeko txosten/proposamenak eduki behar ditu, gutxienez, hurrengo atal hauek:

- Proposatu nahi den kontratazioak ohiz kanpokoak izan behar du eta ez inolaz ere kasu arrunta.
- Txostenean justifikatu eta arrazoitu egin behar dira kontratazioaren premia eta geroraezintasuna.
- Kontratazio proposamena mugatu egin behar da lehentasunezko izaera duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara. Horretarako, justifikatu egin behar da lehentasun hori, kontuan izanda sailean une jakin bakoitzean dauden beharrak.

Hori guztia kontuan hartuta, Kulturako zerbitzuburuak dagokion txostena egin du alderdi horiek justifikatuaz.

Bukatzeko, esan behar da lanpostu berriek ez dutela oraingoz gastu gehikuntzarik izango. Ildo honetatik, Erregimen Lokaleko Testu Bateginak 126. artikuluan honelaxe dio:

*"1. Las plantillas, que deberán comprender todos los puestos de trabajo debidamente clasificados reservados a funcionarios, personal laboral y eventual, se aprobarán anualmente con ocasión de la aprobación del Presupuesto y habrán de responder a los*



TOLOSAKO  
UDALA

*principios enunciados en el artículo 90.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril. A ellas se unirán los antecedentes, estudios y documentos acreditativos de que se ajustan a los mencionados principios.*

*2. Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos:*

*a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.*

*b) Siempre que el incremento de las dotaciones sea consecuencia del establecimiento o ampliación de servicios de carácter obligatorio que resulten impuestos por disposiciones legales.*

*Lo establecido en este apartado será sin perjuicio de las limitaciones específicas contenidas en leyes especiales o coyunturales.*

*3. La modificación de las plantillas durante la vigencia del Presupuesto requerirá el cumplimiento de los trámites establecidos para la modificación de aquél."*

2020. urterako aurrekontuak kontsignazioa aurreikusten dute, bi lanpostu horiek betetzeko.

### **c) ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA**

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 37.1 artikulua c) puntuan xedaturikoaren arabera, giza baliabideetako instrumentuen irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, lanpostu zerrendaren aldaketa hau ordezkari sindikalekin tratatu zen, 2019ko azaroaren 12ko bileran.

### **d) ONARTZEKO PROZEDURA**

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikulua arabera, Udaltzarak eskuduntza du gai hau onartzeko.

- Bestetik, TATBko 127. artikulua baitan, plantila organikoaren prozedura berdina jarraituz, behin udaltzarak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratu eta 15 lanegunetako epean informazio publikoan eduki beharko da onartutako akordioa. Alegaziorik ez badago, onartutzat joko da behin betiko izaeraz.



TOLOSAKO  
UDALA

Hori guztia ikusirik, Antolakuntza Batzordeak, Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleriaren aldeko botuarekin eta Aitana Amondarain Esquisabel, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Ander Figuerido Zubiriaren abstentzioarekin, irizpen hau eman du:

### IRIZPENA

**Lehenik.**- Aldatzea “Liburutegiko teknikari laguntzaile” bi lanpostuen (8.108 kodea) ezaugarriak eta Administrazio Bereziko Eskalakoak izatea, gainontzeko ezaugarriak mantenduaz.

**Bigarrenik.**- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratzea, 15 lanegunetan informazio publikoan edukiaz.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako Udaleko lanpostu zerrendaren aldaketa.

#### **4. ERATZEA UDALBATZAREN ESKUMENEKO KONTRATAZIO-MAHAI IRAUNKORRA.**

... Parte-hartzeak:

... Xabier Balerdi Tolosa Antolakuntzako zinegotzi delegatuak (EAJ-PNV) adierazi du Junta Consultora de Contratacion Publica del Estado emandako irizpenak jarraituz eta baita ere ikusita kontratazio mahai eraketaren zabalkundeak kontratazio arloan irizpide hobetuz kontratazioak egiteko moduan egongo ginatekeela proposatzen dela irizpena eta horren berri eman die batzarkideei.

-----





## **ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2019KO ABENDUAREN 12KO IRIZPENA.**

9/2017 Legeak, azaroaren 8ak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, kontratazio mahaiak xedatzen ditu, kontratazio organoen laguntzaile gisa, hainbat jardunbideetan. Era honetan, aipaturiko Legearen 320. artikulua ondoko hau xedatzen du: *Kontratazeko eskumena kontratazio-batzorde batena denean izan ezik, administrazio publikoen kontratazio-organoei kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatuan, prozedura murriztuetan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren kasuan. Lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez dagoen prozedura negoziatuan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeratu izango du kontratazio-organoa, salbu eta 168. artikuluan b) letraren 1.a puntuan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen denean, orduan nahitaezkoa izango baita mahaia eratzea. 159.6 artikuluan aipatzen diren prozeduretan ere, aukerakoa izango da mahaia eratzea.*

Tokiko entitateen kasuan, kontratazio mahaien araubidea 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian arautzen da, ondoko ezaugarri nagusiekin:

- Kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da
- Mahaikide izango dira, kasu guztietan, korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, edo ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeko eginkizuna duen organoaren titularra.
- Gainontzeko kideak kontratazio-organoa aukeratuko ditu, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean.
- Kontratazio-mahaiak, gutxienez hiru kide osatu behar dute. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago
- Idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.
- Behin-behineko langileek ezingo dute, ez mahaia osatu, ezta eskaintzak baloratzeko txostenak egin. Bitarteko funtzionarioek mahaian parte hartu ahalko dute soilik behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean
- **Mahaiaren osaketa Kontratugilearen Profilean argitaratu behar da.** Halaber, Kontratazio-Mahai Iraunkor bat eratu ahal izango da.

Kontratazio-mahaiak, laguntza tekniko espezializatuko organo gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu, beste batzuen artean:

a) 9/2017 Legearen 140. eta 141. artikuluek aipatzen diren aldez aurretiko baldintzak betetzeari buruzko egiaztagiria kalifikatzea eta, kasua bada, betetze hori egiaztatzen ez duten hautagai edo lizitatuak kanporatzea erabakitzea, zuzentzeko izapidea egin ondoren.



TOLOSAKO  
UDALA

- b) Lizitatzailen proposamenak baloratzea.
- c) Kasua bada, nabarmenki baxuegitzat jotako eskaintza baten kalifikazioari buruzko proposamena egitea, 9/2017 Legearen 149. artikulua aipatzen duen prozedura izapidetu ondoren.
- d) Kontratua eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileri adjudikatzearen aldeko proposamena egitea kontratazio-organoari, Legearen 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazioa gidatzen duten administrazio-klausula partikularren agiriari jarraituz.
- e) Prozedura murriztuan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, hautagaiak aukeratzea, kontratazio-organoak eginkizun hori eskuordetuz gero; administrazio-klausula partikularren agirian jaso beharko da hori.

Bestaldetik, Kontratazio Mahaiek izango dituzte Autonomia Erkidegoetako legeek eta sektore publikoko kontratazioa arautzen duten araudiek ematen dizkien bestelako ahalmenak.

Horretaz gain, Kontratazio Mahaiaren araubide eta funtzionamendua ondoko legeriak arautzen du:

- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretuak, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duenak.
- 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duenak.

... Andu Martinez de Rituerto Arregi (EHBILDU): *“Pertzepzioak ez da berdina, elkarlanarena eta aurrekontuak egiteko metodologiaren inguruan. Jose M<sup>a</sup> esan duen bezala gogoratu behar da legealdi honetako egituraketa zortzi eta zortzi zinegotzi eta PSEko ordezkaria zuekin, EAJrekin egin duzue akordioa baina azken honetan elkarlana eta parte-hartzea hitza askotan entzun ditugu bai gure eta bai zuen aldetik eta esperantza zen aurrekontu hauen lanketan islatzea. Zain egon ginen gonbite hori noiz iritsiko eta ikusita ez zela iristen gure gure proposamenak helarazi genizkizuen. Helburua, elkarlanean aritzea eta gure parte-hartzea bermatzea. Aurrekontua itxi aurretik proposamen zehatzak egin genizkizuen, zuen legealdiko gobernu akordioan ere tokia zutenak. Gure ideia ez zen emendakinak aurkeztea, baizik eta aurrekontuak batera lantzea, hauek elkarlanean eta adostasunean bideratzeko asmoarekin. Proposamen zehatz horiei idatzizko erantzuna emateko eskatu genizuen, horietatik aurrekontuetan isla ekonomikoa zeintzuk izango zuten jakiteko, baina akordio proposamen bezala baino, emendakin edo ekarpen soil bezala hartu zenituzten. Aurkeztu genizkizuen proposamen guztietatik, gure iritsiz gutxi batzuk besterik ez dituzue islatu 2020ko aurrekontuetan. Gainontzeko proposamen guztiak, asmoetan gelditu dira edo, besteen esku uzteko edo aurrerago lantzeko asmoarekin, baina ez dute ez islarik ez konpromiso ekonomikorik izan aurrekontuetan. Laburbilduz, legealdi honetan, eta Udalean dagoen indar banaketa kontutan hartuta, benetako elkarlana eta parte-hartzea espero genuen proiektuen gaineko adostasuna bilatzea eta hauek aurrera eramateko behar diren aurrekontuak egiterakoan metodologia parte-hartzailegoak erabiltzea espero genuen. Zoritxarren oraingo honetan ere ez da horrela izan aldebakartasunez jokatu duzue elkarlanerako borondate gehiegirik azaldu gabe. Bestaldetik, aurreko legealdia, azterketen legealdia izan da. 2020a, egitasmoak egikaritzen hasteko urtea beharko lukeena, azterketen urtea izaten jarraituko duela aurreikusten dugu. Horren adierazgarria da,*



gure proposamen asko, besterik gabe, aztertzen jarraitzeko azaldu duzuen asmoa. Baina ez horiek bakarrik bestea hainbat gai, aurreko urteetatik datoz eta oraingoan ere ez dira gauzatuko. Zumarditxikia eta Rondilla kaleko proiektuak jadanik 2019an idatzita egon behar ziren, eta halaxe jaso zen 2019ko aurrekontuetan, baita 2018koetan ere. 2020a lanekin hasteko urtea behar zuen. 2019an proiektu horiek egiteko konpromisoa hartu zenuten eta urte osoa galdu duzue. Proiektu hauek, 2020ko aurrekontuetan 0 €-ko partida dute, zergatik? 2020an erabiliko dena ez delako 2020koa, 2019an erabili ez zena baizik. Eta behin eta berriz, inbertsio berriak balira bezala aurkeztu dituzue. Bestetik, etxebizitzien alokairua sustatzeko neurrien kasuan adibidez, 2020rako utzi dugu, baina 2015etik zegoen ordenantza bat baztertuta izan duzue legealdi osoan zehar, eta urteetan eskatzen ari zen azterketa 2019an egiten ari zarete, neurriak esan bezala 2021rako utzita. 2020. urtean berriz ere, ez atzera eta ez aurrera geldituko gara.

Badago kezkatzen gaituen beste gai bat eta 2019rako inbertsioetan aurreikusitako 2.370.850 €-tik, gutxi gorabehera, % 40 ez da erabili aurrekontuetan aurreikusitako partidetan. Eta honi lotuta, kreditu aldaketan kopurua oso altua izan da: 2019an, 7,5 milioi € inguru erabili dira kreditu aldaketetan. Gure ustez, inbertsioen exekuzio maila baxuak eta kreditu aldaketan baitan oinarritutako kudeaketak aurreikuspen falta adierazten du. Bestetik, azpikontratutako zenbait zerbitzuekin gertatutakoak aurreikuspen gabezi hau baieztatzen du. Kontratu bat baino gehiago irauungi egin da kontratazio berria prest izan gabe. Ondorioz, epez kanpo ibili zarete eta honek, zenbaitetan, egoera irregularrak sortu ditu.

Tokiko ekonomiari egin duzu aipamena, Begoña, eta behin eta berriz esan duzue Tokiko merkataritza eta ekintzailetasuna sustatzeko ekimenak egingo dituzuela, bertako azokaren promozioarekin batera. Baina aurrekontuak aztertuz, ikus dezakegu sarreretan establezimenduak irekitzeko tasetatik % 25a gutxiago jasotzea espero duzue azoketatik % 6 gutxiago jasoko duzuela, hau da mugimendu gutxiako egongo dela eta Azoka berezietatik berriz % 250 gehiago jasotzea aurreikusten duzue eta gastuetan aldiz: larunbatetako azokak partida berdina du; Merkataritza biziberritzeko partidak ia 5.000 € gutxiago ditu. Eta Oriaburun bai komunikazioetan eta ekintzailetasunerantz jardueretan ez da gasturik aurreikusten. Gastu gehiago aurreikusten da Haragi Festan bezala 11.000 €-ko igoera duena. Hau ikusita ez da erraza tokiko ekonomia nola sustatuko duzuen ikustea, ezer berririk proposatzen ez baduzue, partidak jaitsi egiten badituzue eta ekintzaile jarduerak egiten ez badira. Kezkatzen gaituen beste puntu bat publizitatearena da. Poltsa berri bat sortu duzue, udaleko sail guztietako komunikazio eta publizitate berriak ordaintzeko. Hasiera batean, egokia izan badaiteke ere, beldur gara garrantzi gehiago ez ari ote zareten ematen, irudiari, ekimenei baino. Kasu askotan, publizitatean oinarritzen duzue sustapena, ekintza zehaztuz baino, eta "irudia saltzea" eta "ekimenak bultzatzea" ez dira gauza bera. Ikusi dugun beste puntua da aurrekontuek ez dute gastu erreala islatzen. Honen adierazgarri bat, informatika sistemaren migrazioa da. Hau da, software libretik pribatura pasatzekoa. Honi ematen zaion diru kopuruak ez du bat egiten inondik inora izango duen gastu errearekin. Ikusi dugunez 550.000 €-ko gastua suposatuko dio herriari eta aurrekontuetan erdia besterik ez da agertzen. Arrazoa ezagutu nahi genuke. Eta hala ere, gai honen gainean azpimarratu nahiko genuke, sistema pribatura igarotzeko erabakia erabat politikoa izan dela, eta behar ziren txosten ekonomiko eta tekniko guztiak ez direla egin. Informazio osoa ez duzue gurekin partekatu, eta erabaki politikoa dena, halaberrez egin beharreko kontu teknikoak balitz bezala aurkeztu diguzue. Bestetik, langileen soldaten igoera gastua ere ez da aurrekontuetan islatu. Kontuan izanda Tolosako udalean dauden langile



*guztien soldata igoerak hedapen nabarmena izango duela 2020ko gastuan, zilegi iruditzen zaigu langileekiko konpromiso hori aurrekontu proposamenean aurreikusita egotea.*

*Hau ikusita, eta legealdi plan bat aurkeztu arren, legealdi plan horren helburu estrategikoak aurrera eramateko ekintzak ez ditugu islatuta ikusi zehaztasun gutxiko aurrekontu hauetan eta badirudi, bat-batekotasunean oinarritutako kudeaketarekin jarraituko dugula 2020. urtean. Aurrekontuak lantzeko bide berri bat egin genezakeela uste genuen eta ez da horrela gertatu. Antolakuntza berria ezarri arren, aurrekontuak garatzeko unean molde zaharrekin jarraitu duzue. Hala ere, gure prestutasuna agertzen jarraitu nahi dizuegu Legealdi plangintzako proiektu estrategikoak aurrera eramateko elkarlanean aritzeko, proiektu horiek egikaritzeko epe eta gastuen aurreikuspen errealak aztertzeko eta txosten teknikoetan oinarritutako eztabaida politikoa izateko. Eta horretarako, orain arte faltan bota dugun eta ezinbestekoa ikusten dugu elkarlan eta parte-hartze politikorako gune baten beharra ikusten dugu.”*

- ... Begoña Tolosa Mendia Ogasun eta Finantza Administrazioiko zinegotzi delegatua (EAJ-PNV): *“ Gauza asko esan dituzu, ez dakit gai izango naizen denek erantzuteko baina eskerrak zaudetela elkarlanerako. Gauza bat gonbita esaten duzunean esaterako aurrekontuak prestatzeko uste dut, agian, nire iritzia ez gaudela batera gobernatzen, gobernatzen ari gara Alderdi Sozialistarekin eta egiten duguna da aurrekontuak egiten ditugu gurekin gobernatzen ari garenarekin eta ondoren oposizioari gure proposamena aurkezten diogu. Aurten proposamenak aurkeztu genuen behin ere baino lehenago, uste dut azaroaren 18an. Pare bat egun lehenago zuek prentsaurreko bat egin zenuten eta azaldu zenituzten zuen ekarpenak. Guk egun bertan deialdi egin genuen lehenengo batzorderako. Batzorde horretan aurrekontuan aurkeztu eta eman genizuen hamabost egun, abenduaren 2ra arte hurrengo batzordea egiteko. Hamabost egun horietan, gure bulegoak bata besteen ondoan daude, ni pasa izan naiz zuen bulegora, zuek ez. Ni pasa izan naiz pare bat aldiz, batean zuen ekarpenak hobeto ulertzen direlako azalpen batekin irakurri baino lehen. Ez zenituzten ekarpen gehiago egin, aurrekontuak azalduta zeuden, bazeneukaten ekarpen gehiago egin baina ez zenuten egin. Hala ere, beste pare bat egun utzi genituen, departamentuan ere denbora behar genuelako aldaketa ematen bazen, aldaketak horiek egiteko. Utzi genituen pare bat egun beste edozein ekarpen bat egin aurretik. Abisurik ez zen izan, egunero elkar ikusten dugu. Ez genuen ekarpen gehiago jaso. Alde horretatik, bereizi egingo nuke zer den elkarlana eta prest egotea ekarpena txertatzeko eta egin behar dena egiteko. baina ez gaude batera gobernatzen, hori nire aldetik. Esaten duzu baita ere, inbertsio batzuk zeudela eginda egon behar zutenak, batzuk 2018tik zetozela. Uste dut orduan, 2018an eskatuta zegoela Rondillako aurreproiektua 2019an bai zegoela sartuta Rondillako proiektua eta Zumarditxikiko proiektua eta aparkalekurako. Aldaketa asko egin dira, badakit askotan horrelako azalpenak kalean ez direla ulertzen, baina bai hemen barrukoa ezagutzen dugunok eta hemengo bizitza ezagutzen dugunok, badakigu zer den, alde batetik, eleksioetako urtea, trantsizio urtea dela denontzat eta departamentuetan egon diren aldaketak. Ez da aitzakia, baina errealitatea da, egin egingo dira. Ez bada 2019an 2020an, Zumarditxikikoa aurrea aterako da, baita Rondilla kalekoa ere eta Kultur Etxeko gure legealdi planean zabaldu ditugun ideiak guztiak. Esaten duzuen kreditu aldaketa asko erabiltzen dugula beti komentatu dugu hori ez zela aurreikuspen falta eta hori aurreko legealdian ere eztabaida izaten genuen zuen alderdikideekin. Guk daukaguna da tresna batzuk erabiltzeko kontabilitate aldetik eta egiten duguna da tresna guztiak erabili. Daukagun muga da*



sarrerekin, eta sarreren muga da baita ere gastuarekiko. Aurreko aurrekontuetan sartzan ez dena kreditu aldaketaren bitartez txertatzen dugu eta jarraituko dugu oraingo legealdian ere horrela egiten. Etxe hutsen ordenantza sartu ginenean zegoen eginda, gainera, eta hori uste dut azaldu genuela 2015. urterako bakarrik eginda. Eta 2015. urte hori edukiko ez balu izango zen edo baliagarria izango zen hurrengo urterako, ez dakit zergatik jarriz zen 2015 hori bakarrik egin eta hurrengo urteetan ez jarraitu proiektu horrekin. Eta kasu horretan ateratzen zen proiektua baina uste dut 2018an bukaeran etxeak bukatu ziren eta egin etxe horien esleipena. Eta ordura arte inork ez genekiena zen eraberritu bost etxe huts horiek merkatuan zer harrera izango zuen. Ikusita harrera gero etxeak oso ondo geratu zirela eta harrera hona eduki zuela erabaki genuen horrekin jarraitzea. Ordenantza berreskuratu dugu azterketa ere joan urtean eskatu zen egitea eta martxan dago. Azterketa hori ateratzen denean begiratuko dugu ordenantza horretan joango garen aldatzen. hartu diren lan ildoak zuzenak dira edo han eskatu duen bezala jabeak zergatik ez dute etxe horiek merkaturatzen edo salmentan jartzen ikusiko dugu beste lan ildoak jarraitu, txertatu edo jorratu behar diren. Hortik aterako zaigu hori dena. Gero esan duzu hainbat partida igo-jaitsi. Batzuetan gertatzen da, batzuetan igo edo jaisten dira momentu batean diru kopuru batzuk partida batean txertatu eta besteetan bestean. Sarrera gutxiko direla agian partida batean, haragiarekin dauden diru sarrerak dira txuletarekin zienak baino gutxiagok, beste era baterako ekimena delako. Esaten duzu irudiari ekimenari baino garrantzia handiago ematen diogula. Guretzat ekimena da inportanteena da baina horretarako irudia saldu behar da. Batzuetan bakarrik begiratzen goikoa eta ez gara konturatzen ekimenak ekartzen dituen onurak herrira.. Informatikan ere aipatu duzu, aurrera eraman nahi dugu iraultza informatiko hori ez duzuela ikusten diru partida eta egia da. Egin duguna da ekarri ziguten aurrekontua zen 500.000 euro baino gehiago. Orduan ikusten genuen dena batera ezin zela egin eta egin dugu teknikoari eskatu ea hori nola egin genezakeen bi zatietan. Lehena migrazioa da eta bigarrean beste guztia. Hori noski kreditu aldaketa batekin. Soldata igoeraren aipamenari buruz esan azken urte hauetan egiten ari garena da kreditu aldaketa baten bidez. Lehenengo sei hilabeteko soldata igoera, alde batetik, gainera, onartu egin behar da Madrileko Gobernuan eta gero hurrengo sei hilabetekoa bere igoera lotuta dago azkenengo PIBarekin lotuta. Egiten duguna da kreditu aldaketa baten bidez ezin dela hasieratik jakin. Hauxe da esan behar dudana, ez hartu gaizki esandakoa.”

- ... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): “Prestutasunaren inguruan esan inguruan esan eseri eseri gara eta etorri zarete. Guk proposamena egin genuen eskatu behar izan genuen ea zuen erantzuna zein izan zen eta hortik hasi ziren piskat beste bigarren bilera batera alkatetzan eta hortik etorri ziren zu gure bulegora etortzearena. Guk elkarlanarena ulertzen dugu, lehenago eseri egin behar da eta entzun behar dira proposamenak eta batez ere guri balio izan digu proposamen horien atzean zeintzuk ziren gure ideiak eta modu zabalago batean azaltzea, behintzat ezta?. Baina egia da eseri garen horietan proposamen horiek aurrera eramateko zailtasunak, beste batzuen esku uzteko arrazoiak edo geroratzeko argudioak eman dizkiguzuela. Eta mahai ganean proposamen horiei bidea emateko baino mugak jarri dizkiguzue. Ordenantza bat mugatzaile izan zitekeela edo beste hainbat ekimenen inguruan mugak besterik ez ditugu jaso. Batzordera joan ginenean oraindik orain galdetzen zenuen gure proposamenak emendakin bezala hartu behar al zenituzten. Hor garbi gelditzen da akordiorako edo behintzat ez dugula modu berdinean ulertzen. Guk proposamena aurretik egin genuen horretaz hitz egin eta benetan aurrekontuetan



*isla eduki zezaten. Eta aurrekontuetan isla dutenak oso gutxi dira. Iruditzen zait ez dela berdina esertzea eta entzutea edo benetan horiek jasotzea. Aipatzen zenuen gure proposamenen % 90a jasota dagoela eta posible izan daiteke gure proposamenetan hitz egiten dugun gaien % 90a azaltzea baina ez daude jasota aurrekontuetan, ez dauzkate diru partidak, benetan. Emari-Coworkingeko publiko entzun izan al dugu asko Tokiko ekonomiari garrantzia emango zaiola eta ekintza berriak sortuko direla Tokiko ekonomia sustatzeko. Ekimen berriak ez daude eta galdetu genuenean Emariko zein ekintza berri izango ziren bide batzuk eta publizitatearen bidez sustatuko zela esaten zeniguten eta horregatik esaten genuen, ez dela guretzat behintzat ez dela berdina publizitate eta irudia saltzea edo ekimenak egitea. Lehengo urtean ekintzailetasun jarduera batzuk egin ziren eta horiek aurten ez daukate partidarik. Etxebizitza planari hitz egiten zenuten eta ikusi ahal izan dugu ere bai ordenantza hori nola zen. Egia 2015eko data zeukala baina beste toki batean jartzen dute 2016 eta 2017ko aurrekontuetan partidarik izango bazuen etxebizitza gehiago edo jabe gehiago edukiko zutela programa horretan sartzeko aukera. Eta 2016an eta 2017an partida horiek ez dituzte eduki. Programa hori 2015ean eta bertan geratu zen, et 2016, 2017 eta 2018 aurrera eraman dena 2015ean hasitakoa da, ez da jarraitu horrekin. Informatikako iraultzari buruz hitz egiten zenuten, iraultza handia da, milioi erdiko inbertsioa suposatzen du nun erdia bakarrik aurreikusuten da aurrekontuetan. Eta jakinda ze gastu edukiko duen urtean zehar, logikoena iruditzen zaizu aurreikuspen hori islatuta egotea aurrekontuetan eta ez dago. Kreditu aldaketaren bidez egingo duzue. Beste behin ere gerakinetatik edo den tokitik. Baina isla ez dute, aurrekontu hauek ez dute islatzen benetako gastua zein izango denetan berdina gertatzen da soldatekin. Aurreikusita badago kreditu aldaketa baten bidez emango dela soldata igoera hori, zergatik ez da aurrekontuetan islatzen? Zumardi txiki eta aparkalekuaren ingurukoa, Anduk ondo esan duen bezala, 2019an egon behar zuten idatzita proiektu horiek. Ez da idatzi, suposatzen zen 2020an egon behar zutela jada obra horiek martxan jartzeko bidean eta ez dira egongo. Bestetik, Abegi zentroko obra eta zerbitzua aipatzen dituzue baina hemen badakigu ere bai Abegi zentroko obra egiteko proiektua oraindik ez dagoela onartuta, obra hori ez dagoela eginda, beraz nekez jarriko da zerbitzua 2020an martxan. Horregatik ikusten de partida hori ez posible da ez erabiltzea eta beste urte baterako uztea. Horretaz hitz egiten genuen, aurreikuspen faltaz edo zehaztasunen falta aipatzen genuenean. Ikusten ditugu gastu asko ez direla hartu eta guk egindako proposamen horietatik hitzetan gelditu direla asko. Gauza bitxia egin duzue adibidez jasangarritasunaren inguruko mozioan hartutako konpromisoekin. Alde batetik, diagnostiko bat egin behar zen udal eskumenekoak diren faktore guztiak, faktore guztien horien diagnostiko bat egiteko eta hitzen ordena aldatuta egin duzue izan da klima aldaketaren faktoreak udal eskumenari nola eragingo dioten. Iruditzen zaigu hori ez dela berdina, udal eskumenak dauzkan, udalak dauzkan eskumenen gainean hartzea edo Udalarari nola eragingo dion aldaketa klimatikoa uste dugu ez dela gauza berbera. Ez da gauza berbera ezta ere ordenantza bat egitea energia berriztagarrien inguruan eta ez hartzea kontutan, adibidez, Eusko Jaurlaritzatik datorren dekretuan nola bai kontutan hartzen diren kontutan beste energia berriztagarri batzuk eta hemen bakarrik plaka fotoboltaikoak bakarrik hartzen dira. Horrela gai askotaz edo guk proposatzen genituen gai askotaz erantzun diguzue baina ez dituzte ekimen zehatzak eduki. Horregatik, esaten genuen elkarlana ez dugula ikusi guk ulertzen dugun bezala, behintzat.”*

... Alkatea: “Mila esker Kristina. Nik ikusten dudana da oposizioaren estrategia argi eta



garbi bat. Ez dago gure aurrekontuen aurrekontu alternatiborik, ez dago lanketarik. Oso gauza ñiminoetan sartu zarete. Bai ikusi dut legealdi honetan martxan jarritako antolaketa berri hori oinarri hartuta jasotzen duzuen kudeaketa txostenarekin informazio askoez gehiago baduzuela behintzat lortu nahi dugun helburuetako bat, gardentasunaren bide horretan ari garela lortzen. Oso modu xelebrea da proposamen bat oso orokorra egitea, landu gabeko kopuruekin, oso izaera diferentekoekin, Alde Zaharra eraberritzea edo bizikletak konpontzekoa jartzea dokumentu berdinean, egituratu gabe. Oraindik ezagutu gabe Gobernuak daukan proiektua. Eta gobernuak aurkezten duenean ez da emendakin bat ere ez aurkeztea. Administrazioak dauzka bere arauak eta bere bideak eta gauza bat da elkarlana eta beste gauza bat da arauak ez errespetatzea. Egin dituzuen hainbat kontsiderazio uste dut ez direla zuzenak ere, Coworkingek badauka bere partida, soldata ez dela aurreikusi, ez da ez dela ordainduko langileei. Ez dakit zer esan nahi duzuen kontsiderazio horrekin. Baina modu guztietara, Gobernua lanera gu gurera eta nik bai aipatu nahi dudana 2020ko aurrekontua, orain onartuko dugun aurrekontu hau, oinarrituta dagoela oraintxe aurkeztu berri dugun Legealdiko Kudeaketa Plan horretan, non gainera publikoki jada aurkeztu den herriko plaza eta horrek ere badu bere balioa. Urtez urteko aurrekontuak izango duelako gainera oinarri Plan hori, ezta, gauzatu nahi baldin badugu. Horregatik tolosarrak eta bere ongizatea kokatzen ditugu aurrekontu proiektu honen erdigunean eta, hortaz, tolosarren momentuko, zein etorkizuneko beharrei erantzutea izango da lehentasuna. Izan ere ariketa hori ere egin dugu, gainera, partaidetza prozesu oso mardul batekin lagunduta. Hori esanda eta, Begoñak oso ondo aipatu du lehenago, aurrekontuaren parte inportanteena da Herritarren Lan arloak hartzen du, lehen esandako guztiagatik. Legealdi honek baditu lau helburu oso nagusi. Bata da eraginkortasuna, eraginkortasunak urratsak emate aldera eta nolabait garai berrietara egokitzeke osatu dugu alde batetik, Antolaketa berri hau eta baita ere landu dugu lehenago erreferentzi egin diodan Legealdiko Kudeaketa Plata eta 2020. urtean zehazki Herritarren Arreta Zerbitzua sendotu egingo dugu, batetik, eta Administrazio elektronikoen inguruan urratsak ematen jarraituko dugu eta horri erantzuten dio trantsizio elektronikoa, nolabait, software librean aritzeko beharra nolabait Udalaren eskakizunaren ondorioz. Izan ere hainbat lan egiteko zailtasun handiak zeuden orain arte genbiltzan bezala. Gizarte babesa eta Tokio Garapen ekonomikoa biak batera aipatzen ditugu beti. Guk bata besterik gabe ez dugulako ulertzen nolabaiteko ongizate indibiduala eta kolektiboa bilatzen dugulako. Zehazki gizarte alorrean familia esku-hartzeari eta adineko ongizatea eta zaintzari modu berezian erreparatzen zaio 2020ko aurrekontu hauetan, berdintasunean ekindako bideari jarraitu 2020. urtean klabea izango da Emakumearen Etxearen eraikuntzan. Hiri ekonomia sustatzea ere lehentasunezkoa izango da. Horretarako eta orain bezala, ez bakarrik Coworkingean baduela bere diru partida hainbat gauza egiteko, baizik eta enpresa munduarekin, ekintzaileekin, merkatariekin, ostalariekin lanean jarraituko dugu proiektu berriak garatzeko asmoz. Noski, Turismoa ere sustatzea guretzako oinarritzkoa da Tokiko garapena sustatzeko eta komunikazioa turismo horren baitan, nola ez, oso oinarritzkoa da. Komunikazioari egin diozuen erreferentziari begira, komunikazioa ere baita ere bete betean lotuta dago gardentasunarekin. Hirugarren helburu nagusia Komunitatea garatzen joatea da eta zer proiektu konkretu burutuko dira 2020. urtean. Herritartasun aktiboa sustatzeko batetik, lehen aipatu dudana Emakumearen Etxea eta bestetik, jada dagoeneko abian, lehengo egunean egin zen lehenengo bilera Tolosatzen eskola proiektu irekiaren baitan. Eta laugarrena, Jasangarritasuna. Bide horretan aldaketa klimatikoari aurreko egiteko tokiko plana burutuko da 20120.





urtean. Plan horrek, noski, Eusko Jaurlaritzak legean bertan jasotako plana izango da, beraz, planak berak erreferentzi egingo dio gure eskumenak kontutan hartuz zeintzuk diren hartu beharko ditugun neurriak, baina hori Planak esango digu. Bitarte horretan, lehen ere ardura bazuelako Udal honek, neurri zehatzak hartuak ditugu. Bata, adibidez, Hiribus elektronikoa, dagoeneko pleguak lantzen ari garenak eta horren alde apustua egingo dugu. Eta eguzki plaken apostu zehatzak. Tolosa txukunago eta garbiago mantentze aldera kale garbiketa zerbitzua areagotzeko dagoeneko pleguak ere lantzen ari dira Udaletxean baina esleipena hurrengo urtean izango da. Mantentze lanerako ere plangintza osatuko da, alde batetik eraikinak eta bestetik kale mantenua eta, noski, kontzientziario eta sentsibilizazio kanpainak egiten jarraituko beharko dugu. 2020ko inbertsio nagusiak, beraz, Legealdiko Kudeaketa Planari erantzuten diote zehazki eta asko landutako dokumentua izan da, ez bakarrik politikoki, baizik eta, teknikoekin batera. Beraz, gauzagarria dela uste dugu. Eta datorren urteari begira aipatu dira zeintzuk diren proiektuak baita ere Legealdi plana hori osatze aldera ere legealdi bukaerarako aurreratuko ditugun proiektu horiek Izango dira Zumardi txikikoa, aparkalekuaren azterketarekin batera. Rondilla kalekoa, noski, herritarren partaidetzarekin batera. Izan ere, Topic-en aurkezpena egin genuenean herritar batek kezka azaldu zuen, eta Kultur Etxea berritzeko proiektua ere egingo dugu. Esan bezala, erronka handiak dira aurrean ditugunak, gogo handiz, elkarlana ere berriz mahai gainean daukagu eta beste gauza da oposizioak erabili nahi duen estrategia ikustarazteko ez dagoena. Legealdi honetan bozeramaile bilerak hamabost egunero egiten dira, aukera ematen zaizue hitz egiteko noiz nahi eta, ez dut uste, edo betaurreko diferenteak ditugu edo oraindik udal administrazioaren arauak ez dituzue agian oraindik ondo ezagutzen. Baina garbi utzi nahi dut Gobernu honek elkarlana beti azaldu duela borondatea izateko noiz nahi eta momentuero.”

-----

## **ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2019KO ABENDUAREN 12KO IRIZPENA.**

### **Aurrekariak**

2020ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra eta bere barne dauden ondorengo aurrekontuak aurkeztu dira:

Udala	27.375.195,00
Iurreamendi egoitza	25.400,00
Tolargi S.L.	1.403.540,00
Erretengibel S.A.	364.585,00



TOLOSAKO  
UDALA

Tolosa Lantzen S.A.	918.900,00
Tolosa Gasa S.A. (%60ko partaidetza)	337.209,00

Aipatutako aurrekontuetako bakoitzean sartu dira ekitaldian likidatu beharreko eskubideengatik aurreikusitako sarreraren egoera eta ordainketazko nahiz konpromisozko beharrei aurre egiteko kredituen gastuen egoera.

Aurrekontuetan jasotako diru-sarrerak nahikoak dira bertan aurreikusitako gastuei aurre egiteko. Era horretan, Aurrekontu Orokorrak ez du hasierako defizitirik.

Aurrekontu Orokorra nahiz bera osatzen duten aurrekontuak egiterakoan aurrekontu gaietan indarrean dauden xedapenak izan dira kontuan.

Aurrekontu Orokorren onarpena Udalbatzarraren esku dago eta gehiengo soilaren aldeko botoa behar du.

Aurrekontu Orokorra onartzen duen behin-behineko erabakia hartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Udaletxeko iragarki taulan jarriko da jendeari horren berri emateko eta, hamabost laneguneko epean, jendeak aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzan.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten bada, Udalbatzarrak hilabeteko epean erabaki behar du eta Aurrekontu Orokorra behin betiko onartzea.

Erreklamaziorik ez badago, hartutako behin-behineko erabakia behin betikoa izango da.

### **Araubide aplikagarria**

•~~€€€€€€€€~~ 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.

Proiektuaren laburpena kapituluka hau da:

### **Tolosako Udalaren Aurrekontua.**



TOLOSAKO  
UDALA

SARRERAK

INGRESOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	5.836.715,00	1	Impuestos directos	5.836.715,00
2	Zeharkazo zergak	505.419,51	2	Impuestos indirectos	505.419,51
3	Tasak eta bestelako sarrerak	4.673.115,87	3	Tasas y otros ingresos	4.673.115,87
4	Transferentzia korronteak	15.427.050,00	4	Transferencias corrientes	15.427.050,00
5	Ondare sarrerak	532.714,62	5	Ingresos patrimoniales	532.714,62
6	Inbertsio errealen besterenganatzea	400.180,00	6	Enajenación de inversiones reales	400.180,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	27.375.195,00		TOTAL	27.375.195,00



TOLOSAKO  
UDALA

GASTUAK

GASTOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Personal Gastuak	9.853.594,00	1	Gastos de personal	9.853.594,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	10.544.860,00	2	Bienes corrientes y servicios	10.544.860,00
3	Finantza Gastuak	30.000,00	3	Gastos financieros	30.000,00
4	Transferentzia korronteak	4.002.778,00	4	Transferencias corrientes	4.002.778,00
6	Inbertsio errealak	1.670.600,00	6	Inversiones reales	1.670.600,00
7	Kapital Transferentziak	185.000,00	7	Transferencias de capital	185.000,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	1.088.363,00	9	Pasivos financieros	1.088.363,00
	GUZTIRA	27.375.195,00		TOTAL	27.375.195,00

**Iurreamendi egoitzaren Aurrekontua**

SARRERAK

INGRESOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
------	-------	------	------	--------------	-------



TOLOSAKO  
UDALA

1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Impuestos directos	0,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Impuestos indirectos	0,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	400,00	3	Tasas y otros ingresos	400,00
4	Transferentzia korronteak	25.000,00	4	Transferencias corrientes	25.000,00
5	Ondare sarrerak	0,00	5	Ingresos patrimoniales	0,00
6	Inbertsio errealen besterenganatzea	0,00	6	Enajenación de inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	25.400,00		TOTAL	25.400,00

GASTUAK

GASTOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Pertsonal Gastuak	0,00	1	Gastos de personal	0,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	25.400,00	2	Bienes corrientes y servicios	25.400,00
3	Finantza Gastuak	0,00	3	Gastos financieros	0,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
6	Inbertsio errealak	0,00	6	Inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	25.400,00		TOTAL	25.400,00

**Erretengibel S.A.ren Aurrekontua**

SARRERAK

INGRESOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
------	-------	------	------	--------------	-------



TOLOSAKO  
UDALA

1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Impuestos directos	0,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Impuestos indirectos	0,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	0,00	3	Tasas y otros ingresos	0,00
4	Transferentzia korronteak	160.585,00	4	Transferencias corrientes	160.585,00
5	Ondare sarrerak	44.000,00	5	Ingresos patrimoniales	44.000,00
6	Inbertsio errealen besterenganatzea	0,00	6	Enajenación de inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	160.000,00	7	Transferencias de capital	160.000,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	364.585,00		TOTAL	364.585,00



TOLOSAKO  
UDALA

GASTUAK

GASTOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Personal Gastuak	0,00	1	Gastos de personal	0,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	136.585,00	2	Bienes corrientes y servicios	136.585,00
3	Finantza Gastuak	700,00	3	Gastos financieros	700,00
4	Transferentzia korronteak	60.000,00	4	Transferencias corrientes	60.000,00
6	Inbertsio errealak	25.000,00	6	Inversiones reales	25.000,00
7	Kapital Transferentziak	135.000,00	7	Transferencias de capital	135.000,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	7.300,00	9	Pasivos financieros	7.300,00
	GUZTIRA	364.585,00		TOTAL	364.585,00



TOLOSAKO  
UDALA

## Tolargi S.L.ren Aurrekontua

### SARRERAK

### INGRESOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Impuestos directos	0,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Impuestos indirectos	0,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.404.204,00	3	Tasas y otros ingresos	1.404.204,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
5	Ondare sarrerak	0,00	5	Ingresos patrimoniales	0,00
6	Inbertsio errealen besterenganatzea	0,00	6	Enajenación de inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	-664,00	8	Activos financieros	-664,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	1.403.540,00		TOTAL	1.403.540,00





TOLOSAKO  
UDALA

GASTUAK

GASTOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Personal Gastuak	481.254,00	1	Gastos de personal	481.254,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	771.386,00	2	Bienes corrientes y servicios	771.386,00
3	Finantza Gastuak	900,00	3	Gastos financieros	900,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
6	Inbertsio errealak	135.000,00	6	Inversiones reales	135.000,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	15.000,00	9	Pasivos financieros	15.000,00
	GUZTIRA	1.403.540,00		TOTAL	1.403.540,00

**Tolosa Lantzen S.A.ren Aurrekontua**

SARRERAK

INGRESOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
------	-------	------	------	--------------	-------



TOLOSAKO  
UDALA

1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Impuestos directos	0,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Impuestos indirectos	0,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	64.500,00	3	Tasas y otros ingresos	64.500,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
5	Ondare sarrerak	508.700,00	5	Ingresos patrimoniales	508.700,00
6	Inbertsio errealeen besterenganatzea	0,00	6	Enajenación de inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	345.700,00	8	Activos financieros	345.700,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	918.900,00		TOTAL	918.900,00

GASTUAK

GASTOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Pertsonal Gastuak	66.400,00	1	Gastos de personal	66.400,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	432.500,00	2	Bienes corrientes y servicios	432.500,00
3	Finantza Gastuak	0,00	3	Gastos financieros	0,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
6	Inbertsio errealak	420.000,00	6	Inversiones reales	420.000,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	918.900,00		TOTAL	918.900,00

**Tolosa Gasa S.A.ren Aurrekontua (%60a)**

SARRERAK

%60a

INGRESOS

60%

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
------	-------	------	------	--------------	-------



TOLOSAKO  
UDALA

1	Zuzeneko zergak	0,00	1	Impuestos directos	0,00
2	Zeharkazo zergak	0,00	2	Impuestos indirectos	0,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	534.000,00	3	Tasas y otros ingresos	534.000,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
5	Ondare sarrerak	1.800,00	5	Ingresos patrimoniales	1.800,00
6	Inbertsio errealeen besterenganatzea	0,00	6	Enajenación de inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	-198.591,00	8	Activos financieros	-198.591,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	337.209,00		TOTAL	337.209,00

GASTUAK

%60a

GASTOS

60%

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Personal Gastuak	41.904,00	1	Gastos de personal	41.904,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	295.305,00	2	Bienes corrientes y servicios	295.305,00
3	Finantza Gastuak	0,00	3	Gastos financieros	0,00
4	Transferentzia korronteak	0,00	4	Transferencias corrientes	0,00
6	Inbertsio errealak	0,00	6	Inversiones reales	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	337.209,00		TOTAL	337.209,00

**Aurrekontu bateratua**

SARRERAK

INGRESOS



TOLOSAKO  
UDALA

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	5.830.744,00	1	Impuestos directos	5.830.744,00
2	Zeharkazo zergak	505.420,00	2	Impuestos indirectos	505.420,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	5.788.175,00	3	Tasas y otros ingresos	5.788.175,00
4	Transferentzia korronteak	15.427.050,00	4	Transferencias corrientes	15.427.050,00
5	Ondare sarrerak	1.087.215,00	5	Ingresos patrimoniales	1.087.215,00
6	Inbertsio errealen besterenganatzea	400.180,00	6	Enajenación de inversiones reales	400.180,00
7	Kapital Transferentziak	0,00	7	Transferencias de capital	0,00
8	Finantza Aktiboak	146.445,00	8	Activos financieros	146.445,00
9	Finantza Pasiboak	0,00	9	Pasivos financieros	0,00
	GUZTIRA	29.185.229,00		TOTAL	29.185.229,00

GASTUAK

GASTOS

Kap.	Izena	Euro	Cap.	Denominación	Euros
1	Pertsonal Gastuak	10.443.152,00	1	Gastos de personal	10.443.152,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuak	11.312.021,00	2	Bienes corrientes y servicios	11.312.021,00
3	Finantza Gastuak	31.600,00	3	Gastos financieros	31.600,00
4	Transferentzia korronteak	3.877.193,00	4	Transferencias corrientes	3.877.193,00
6	Inbertsio errealak	2.250.600,00	6	Inversiones reales	2.250.600,00
7	Kapital Transferentziak	160.000,00	7	Transferencias de capital	160.000,00
8	Finantza Aktiboak	0,00	8	Activos financieros	0,00
9	Finantza Pasiboak	110.663,00	9	Pasivos financieros	110.663,00
	GUZTIRA	28.185.229,00		TOTAL	28.185.229,00



TOLOSAKO  
UDALA

Proposamena bozkatu egin da, ondorengo emaitzarekin:

Xavier Balerdi (EAJ): Aldeko botoa

Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa

Nerea Letamendia (EAJ): Aldeko botoa

Garbiñe Marzol (EH-Bildu): Abstentzia

Ander Figuerido (EH-Bildu): Abstentzia

Aitana Amondarain (EH-Bildu): Abstentzia

Jose Mari Villanueva (PSE-EE): Aldeko botoa

Beraz, Batzordeak diktaminatu du

**Lehena:** Hasierako onarpena ematea 2020ko Aurrekontu Orokorrari.

**Bigarrena:** Jendaurrean jartzea hamabost egunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

**Hirugarrena:** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gain, Tolosako Udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Aurkako botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla



TOLOSAKO  
UDALA

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, hasierako onarpena eman dio 2020ko Aurrekontu Orokorrari.

**7. ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO AZAROAREN 4TIK 29RA (2019/1779-2019/2016).**

Alkatetzak 2019ko azaroaren 4tik 29ra (2019/1.779-2019/2016) bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**8. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Ez dago ez galderarik, ez eskaerarik

Besterik gabe, 20:30ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA  
O.e.

IDAZKARIA



## ERANSKINA I

### LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA MODIFICACIÓN DE RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO

#### EGUNGO EGOERA

#### 8. KULTURA, JAIK ETA GAZTERIA / CULTURA, FIESTAS Y JUVENTUD

##### 8.1. KULTURA / CULTURA

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN							ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS								ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN	
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUAC.	OHARRA K OBSERV.
8.108	LIBURUTEGIKO ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO-A DE BIBLIOTECA	F	N	2	1	C	C1	AG	4	300		3	31.01.1994	17	13.909,28				O	

#### PROPOSATUTAKO ALDAKETA

#### 8. KULTURA, JAIK ETA GAZTERIA / CULTURA, FIESTAS Y JUVENTUD

##### 8.1. KULTURA / CULTURA

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN							ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS								ORDAINKETA RETRIBUCIÓN				EGOERA SITUACIÓN	
Kodea Código	Lanpostuaren Izena / Denominación del Puesto	LH RL	LM TP	DOT	DM RD	H P	ST GC	ES	AZ SU	TIT	GB CC	HE PL	Derrig. Data Fecha Prec.	LP M N. CD	BO C. ESP.	DB DE	OP CP	NP PP	EGOER A SITUAC.	OHARRA K OBSERV.
8.108	LIBURUTEGIKO TEKNIKARI LAGUNTAILEA/ TECNICO AUXILIAR DE BIBLIOTECA	F	N	2	1	C	C1	AE	3	300		3	31.01.1994	17	13.909,28				O	